

UDALAK 2012ko UZTAILAREN 24EAN EGINDAKO OHI KANPOKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Luis Intxauspe Arozamena jn.

ALKATEORDEAK:

Gloria Mendinueta Yeregi and.

Idurre Conde Santa Cruz and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

ZINEGOTZIAK:

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Iker Goenaga Gubia jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Nahiara Sanchiz Arregui and.

Estefanía Morcillo Cerdan and.

M^a Jesus Egido Moreno and.

Jose Antonio Sánchez Almaraz jn.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Juan Antonio Cuesta Solé jn.

Iñaki Barrio Sagastume jn.

2012ko uztailaren 24ean ohi kanpoko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantxa Urain Mendiburu idazkaria.

KONTUHARTZAILEORDEA:

Arantxa Apodaka Fernandez and.

IDAZKARIA:

Arantxa Urain Mendiburu and.

1.- AKTA ONARTZEA: 2011-06-21. - 2012ko ekainaren 21ean egindako bileraren akta onartu da (Talde Sozialista abstenitu egin da).

Talde Sozialistak azaldu du zergatik abstenitu diren: bilera horretan ez zutelako parte hartu.

2.- 2012KO EKAINAREN 18TIK 2012KO UZTAILAREN 20RA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA. - 2011ko ekainaren 18tik 2012ko uztailaren 20ra bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da.

- * Alkate jn.
- * Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.
- * Kiroletako delegatu jn.
- * Hezkuntza eta Enpleguko delegatu and.
- * Politika Sozialeko delegatu jn.

3.- EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRAKO 2 ZINEGOTZI KARGUAZ JABETZEA. - Hauteskunde-Batzorde Nagusiak hautetsi hauen kredentzialak bidali ditu: M. Jesús Egido Moreno eta Jose Antonio Sánchez Almaraz (Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra), zeintzuk beren nortasuna egiaztatu eta bateraezintasun arrazoiak deklarazioa, jarduera eta ondare-ondasunak aurkeztu baitituzte, Udaltzaren Interesen Erregistroan sartze aldera.

M. Jesús Egido Morenok eta Jose Antonio Sánchez Almarazek zinegotzi kargua hartu dute, eta hitz eman dute beren kargua betetzerakoan Espainiako Konstituzioari, Autonomia Estatutuari eta horien ondoriozko legeei men egingo dietela.

4.- HERNANIKO ZENBAIT ZONALDERI IZENA EMATEA: SANTA BARBARAKO SB.03, SUE-15.10 (SAGASTIYA) ETA KARABELEKO PK.02. - Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza batzordeak 2012ko uztailaren 17an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

1.- Aipatzen diren zonalde berriei, ondoko izenak ematea:

- Santa Barbarako SB.03: Arrigoainpe auzoa.
- SUE 15.10 (Sagastiya):
 - Sagastialdeberri atzean: Laiztiaga auzoa.
 - Antziolako auzoaren atzean: Iturmendi auzoa
 - Antziolako auzoaren atzean sortu den parkea: Iturmendi parkea.
- Karabel PK.02: Oleta Kalea zenbaki ez pareekin jartzea.

2.- Aipatutako akordioaren berri, Eusko Jaur-laritzako Etxebide sailari eta "Construcciones Oraune"ri ematea.

5.- 1300/2011 PROZEDURA ARRUNTARI BURUZ EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO SALAK EMAN DUEN 73 / 2012 EBAZPENAREN BERRI EMATEA.- Udaltzarak jakin du 1300/2011 zenbakiko Administrazioarekiko Auzietarako Errekurtsoa ezetsi dela eta, ondorioz, bukatua dagoela. Errekurtso hori udaltzarak 2011ko apirilaren 1eko osoko bilkuran "Animaliak Edukitzea eta Babestea arautzen duen Udal Ordenantza"ri buruz hartutako erabakiaren kontrako da.

6.- GARBIGUNEAK ERABILTZeko SAN MARKOSEKO MANKOMUNITATEA ETA HERNANIKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA. - Aztertu da Zerbitzu publiko eta merkataritza Batzordeak 2012ko uztailaren 17an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- Onar dezala "Garbigunea erabiltzeko San Markoko Mankomunitatearen eta Hernaniko Udalaren arteko hitzarmena". (Eranskina)
- 2.- Hernaniko alkate Luis Intxauspe Arozamena edota, honen legezko ordezkari, ahalmena ematea, akordio hau formalizatzeko beharrezkoak diren dokumentu publiko nahiz pribatuak sinatzeko.
- 3.- San Marko Mankomunitateari akordio honen berri ematea.

7.- 2012KO AURREKONTUKO "TRANSFERENTZIA HIRUGARREN MUNDURA" PARTIDAREN BANAKETA ALDATZEKO PROPOSAMENA. - Hernaniko Udaleko 2012 aurrekontuetako gastuetako 1.0900.481.02.313.50 "Hirugarren mundura transferentzia" partidari, 182.053€ onartzen du. Eta horrela banatua geratzen da:

- %15 Euskal Fondoak.
- % 75 Gobernu kanpoko Erakundeek aurkeztutako egitasmoak.
- % 10 Sentiberatze kanpainak

Politika Sozialeko Batzordeak 2012ko ekainaren 14an egindako ez ohiko bilkuran besteak beste, eman zuen goian aipatutako banaketa irizpideak aldatzeko irizpena.

Aztertu da Politika Sozialeko Delegatuak 2012ko uztailaren 19an aurkeztutako proposamena.

Se acuerda, con la abstención del Sr. Barrio (H1!):

Hernaniko Udaleko 2012. urteko aurrekontuko 1.0900.481.02.313.50 "Hirugarren mundura transferentzia" (182.053€) partidaren banaketa zuzentzea. Honela:

- Euskal Fondoaren egitasmoak: % 23
- Gobernu kanpoko erakundearen egitasmoak % 70
- Gobernu kanpoko erakundearen sentiberatze egitasmoak: % 7

8.- UDAL EUSKALTEGIAREN TASAK ONARTZEKO PROPOSAMENA. - Aztertu da Ogasun eta Ondare-Kontuarentarako Batzorde Berezia Batzordeak 2012ko uztailaren 18an emandako irizpena.

Hau erabaki da (H1!-eko Barrio jauna abstenitu egin da):

- 1.- Zerbitzuak eskaini eta jarduerak egiteagatik 2012/2013 ikasturtean ordaindu beharreko tasen ordenantza fiskalaren 13. eranskinari tasa berri bat onartzea eta tarifak aplikatzeko arauak onartzea:

AURREZ AURREKO IKASTAROAK ETA AUTOIKASKUNTZA

a) Hau izango da 2012/2013 ikasturtean aplikatuko den tarifa:

Ikastaldi osoak, 2012ko irailtik/urritik 2013ko ekainera arte astelehenetik ostegunera, bi ordu egunean, 365,50 €.

b) Ikasturtea bigarren edo hirugarren hiruhilabetekoan hasten dutenek, epe horri dagokion diru kopurua ordainduko dute.

c) Tarifa aplikatzeko arauak:

Matrikularen ordainketa honela egingo da:

1. Matrikula egiteko momentuan 30 € ordainduko dira.
2. Klaseko lehenengo astean %50 osatzeko falta den kantitatea sartuko da horretarako ezartzen den kontu korrontean.
3. Ikastaldia hasi eta bi hilabeteko epean gelditzen den beste %50 sartuko da kontu horretan bertan.

Bigarren zati hau ordaindu aurretik eta pisuzko arrazoi batengatik (gaixotasuna edota lana, esaterako) baja izanez gero, ez da 2. zatia ordainaraziko. Horretarako, ikasleak idatziz adierazi eta beharrezkoak diren egiaztagiriak aurkeztu behar ditu. Baldin eta matrikula osorik ordaindu badu, eta aurkeztu duen dokumentazioa Udalak ontzat hartzen badu, itzuli egingo zaio 2. zatiari dagokion kopurua.

Ikasturte hasieran matrikula honako kasu hauetan itzuliko da:

1. Ikasleren bat lehendabiziko astean lanean hasten bada, baldin eta lanean hasi den enpresaren ziurtagiriaren bidez egiaztatzen badu (enpresaren zigilua beharrezkoa da).
 2. Lehendabiziko astean ikasleak, gaixotasunen bat dela eta, baja ematen badu, aurreko puntuan egindako salbuespen bera egingo da, baina medikuaren egiaztagiri ofiziala aurkeztu beharko du.
 3. Euskaltegiaren funtzionamendutik eratorritako kasuak direla medio, bi kasu hauetan:
 - Ikasleak nahi duen ordutegian talderik osatu ez bada eta beste ordutegi batean ezin badu.
 - Ikaslea maila batean hasi ondoren, beste maila batean egotea komeni zaiola konturatu bagara, eta ordutegi horretan dagokion mailako talderik ez badauka edota beste aukerak baztertzeko baditu, ordaindutakoa itzuli egingo zaio.
- 2.- Aurreko erabakia jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, izan ditzakeen erreklamazio eta oharrek jasotzeko.
- 3.- Hartutako erabakia behin betikoa izango da, erabaki berri bat hartu beharrik gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igaro eta inolako erreklamazio eta oharrik egin ez baldin bada.
- 4.- Alkateari tributuak arautzen dituen erabakia-ren eta ordenantzen testuak bategiteko ahalmena ematea, Udalak onartutako aldaketa guztiak sartuta

9.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGAREN ORDENANTZAREN 5 ARTIKULUA ETA HIRIGINTZA BAIMENAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAREN ORDENANTZA ALDATZEKO PROPOSAMENA (ZERGA 3). - Aztertu da Ogasun eta Ondare-Kontuetarako Batzorde Bereziak Batzordeak 2012ko uztailaren 18an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabki da aho batez:

1.- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren Ordenantzaren 5. artikulua 3.4 eta 4.4 apartatuaren aldaketa onartzea, 2012ko urtarrilaren 1etik ondorioekin:

5. Artikulua: ONURA FISKALAK

3. Salbuespenak: Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren ordainketatik salbuetsita egongo dira ondorengo obrak:

3.4 Herri ikastetxeetan egin beharreko obrak, beti ere obra bukatu ondoren Udalarari eraikinaren mantenamendua badagokio

4. Hobariak:

4.4 Eraikuntzek, instalazioek edo obrek 100eko 95era arteko hobaria izango dute, interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean arrazoi sozial, kultural edo historiko-artistikoengatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udala Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Eusko Jaurlaritzak Herri ikastetxeetan egin beharreko obrak Interes berezikoak izendatzen dira, beti ere ikastetxe hauen mantenamendua Eusko Jaurlaritzarena bada eta lizentzia Eusko Jaurlaritzaren izenean badago ere. %95eko hobaria izango dute obra horiek.

2.- Hirigintza baimenak emateagatik ordaindu beharreko tasaren Ordenantzaren aldatzeketa onartzea 2012ko urtarrilaren 1etik ondorioekin:

Onura Fiskalen apartatua:

3. Ez dute tasa ordaindu beharrik izango Herri ikastetxeetan egin beharreko obrek, beti ere obra bukatu ondoren Udalarari eraikinaren mantenamendua badagokio.

3.- Aurreko erabakia jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, izan ditzakeen erreklamazio eta oharak jasotzeko.

4.- Hartutako erabakia behin betikoa izango da, erabaki berri bat hartu beharrik gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igaro eta inolako erreklamazio eta oharrik egin ez baldin bada.

5.- Alkateari tributuak arautzen dituen eraba-kiaren eta ordenantzen testuak bategiteko ahalmena ematea, Udalak onartutako aldaketa guztiak sartuta

10.- AURREKONTUETAKO KREDITU ALDAKETARAKO 2/2012 ESPEDIENTEA, HERNANIKO UDALEKO AURREKONTUA. - Hernaniko Udalaren 2012ko aurrekontuaren barnean kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den 2/2012 kreditu aldaketarako espedientea aztertu dugu.

Espedienteko egoera orrisan biltzen diren eta espero zirenen gainetik jaso diren sarrera berriak edo handiagoak, hain zuzen, aplikagarria den foru araudian espreski zerrendatu dira, eta espedientean proposatutako gastu gehikuntza oso-osorik finantzatzen dute.

Halaber, Fondoek Kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu dugu.

Aztertu da Ogasun eta Ondare Batzordea-Kontuetarako Batzorde bereziak 2012ko urtarrilaren 18an emandako irizpena.

Esandakoa kontuan hartuta, Alkate jaunak irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

- * Aldeko botoak: 9 (BILDU).
- * Kontrako botoak: 1 (H1!).
- * Abstentzioak: 4 (1 EAJ-PNV, 3 EUSKAL SOZIA-LISTAK).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

- 1.- Hernaniko Udalaren Aurrekontu kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako 2/2012 espedientea onestea, **234.826 euroko** zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orrian ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoek Kontuhartzaileak Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin isladatzea, baina hala eta guztiz ere, Udal Osoari ekintza horren berri eman beharko zaio lehendabiziko bilkuran.

11.- EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIARI MAILEGUA EMATEKO PROPOSAMENA, EREÑOTZUKO PILOTALEKU ESTALIA ERAIKITZEKO LANEN 1. FASEA ZATI BATEAN FINANTZATZEKO. - Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak aurreikusia du Ereñotzun pilotaleku estalia eraikitzeke lanen 1. fasea burutzea.

Horretarako, xehetasun-azterketa eta egikaritzapen-proiektua idazteko eskatu zioten Ibai Kerejeta Otxotorena arkitektoari, 2012ko maiatzaren 9an auzo-alkateak emandako dekretuaren bidez.

Aipatutako proiektuan jasotzen denez, kontratazio-aurrekontua honakoa da: 588.230,09 euro (%18ko BEZ barne), eta kopuru horri 16.592,28 euro (%18ko BEZ barne) gehitu behar zaizkio, ordainsari fakultatiboek dagokiena. Bi zenbatekoen batura hau da: 604.822,37 euro (%18ko BEZ barne).

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak, gaur-gaurkoz, honako diru kopurua du obra horri aurre egiteko:

- * Kontusaila: 1.0100.622.01.449.90.2012 "Pilotale-ku. Eraikina" Kreditu erabilgarria: 369.756,90 euro
- * Kontusaila: 1.0100.629.01.449.90.2012 "Hainbat inbertsio" Kreditu erabilgarria: 15.616,41 euro

Lehenengo kontusaila, neurri batean gaitu da Eusko Jaurlaritzak Ereñotzuko Toki Entitate Txikiari pilotalekua egiteko emandako 2 dirulaguntzekin. Dirulaguntzen guztizkoa: 285.120 euro.

Goian aipatutako bi kontusailetan erabilgarri dagoen kreditua hauxe da: 385.373,31 euro.

Oraindik formalki egiaztatu gabe, 2 dirulaguntza daude. Bata Gipuzkoako Foru Aldundiarena, 60.000 eurokoa, eta bestea Behemendirena, 15.000 eurokoa.

Horiek horrela, bada, eraikitze lanak esleitu ahal izateko, Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak 219.449,06 euro gehiago beharko lituzke. Areago, BEZ tipoa, zurrerik,%18tik %21era igokoenez, lana esleitzen denerako 234.825,90 euro beharko lituzke.

Aztertu da Ogasun eta Ondare Batzordea-Kontuetarako Batzorde bereziak 2012ko urtarrilaren 24ean emandako irizpena.

Zera erabakitzen da, Sozialista taldearen 3 Zinegotzien abstentzioarekin.

Kreditu aldaketarako 2/2012 espedientea onartutakoan, zeinaren bidez Udal aurrekontuko gastuen atalean honako kontusail hau sortuko baita: 1.0100.832.01.123.00.2012 "Ereñotzuko TET-ari mailegua, pilotalekua eraikitze". Kontusailaren zenbatekoa: 234.826 euro; eta sarreren atalean beste hau: 2.832.01.2012 "Ereñotzuko TET-ari pilotalekua eraikitze", gastuen ataleko partidaren zenbateko bera duena; eta zehazteke dauden 2 dirulaguntzak (Foru Aldundiarena eta Behemendirena) eta lanen esleipen-prezioa zehaztutakoan.

Eman diezaiola Ereñotzuko Toki Entitate Txikiari mailegu bat Ereñotzuko pilotaleku estalia eraikitze lanen 1. fasea zati batean finantzatzeko. Maileguaren zenbatekoa, itzultzeko epea eta gainerako baldintzak dagokion momentuan zehaztuko dira, eta aurrez Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak eskaera egin beharko dio Udalari.

12.- EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIARI EGIN BEHARREKO EKARPEN ARRUNTA ERREGULATZEKO PROPOSAMENA, UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSAREN (UFFF) UDAL PARTAIDETZAN DESBIDERAKETARIK GERTATUZ GERO. - Urriaren 7ko 26/2010 Foru Dekretuaren bidez Hernaniko Udalerrian Ereñotzuko Toki Entitate Txikia eratu zen, udalbatzak 2010eko urtarrilaren 28ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren arabera.

Foru Dekretu horren xedapen zatiaren 6. artikulua hau ezartzen du:

6. artikulua. Aurrekontu esleipenak. Ereñotzuko toki entitate txikiak Hernaniko Udaletik jasoko ditu 2010eko urtarrilaren 28ko ohiko bilkuran Udal Batzarrak hartutako akordioan aurreikusitako aurrekontu esleipenak, foru dekretu honen eranskinean jasotzen direnak:Udalak egin beharreko ekarpen ekonomikoa:

Urteko diru ekarpen arrunta: Hernaniko Udalak onartzen duen aurrekontuaren arabera kalkulatu da; ponderazio indize bat aplikatuko zaio Ereñotzuko biztanleriaren bilakaeraren arabera. Gastuen kapituluetan ehuneko hauek aplikatuko dira:

Personal gastuak (I. kapitulua): *onartzen den aurrekontuaren %0,7.*

Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak (II. kapitulua): *onartzen den aurrekontuaren %1,7.*

Udal eremuko entitate autonomoetarako transferentzia arruntak (bakarrik IV. Kapituluaren 431 artikulua): *onartzen den aurrekontuaren %0,50.*

- *Inbertsio errealak (VI. kapitulua): onartzen den aurrekontuaren %2.*

- *Inbertsioetarako urteko kopuru finkoa: 30.000 euro.*

Gero, martxoaren 29ko 10/2011 Foru Dekretuaren bidez, 26/2010 Foru Dekretua zuzendu egin zen, udalbatzak 2011ko urtarrilaren 24ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren arabera. Zuzendu zena Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuen kapitulutik (II. Kapituluak) jaso beharreko ehunekoa izan zen, %1,7tik %2ra aldatuz.

Banaketa sistema honen bidez Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak bi aportazio jasotzen ditu Hernaniko Udalaren eskutik, bat gastu arruntei aurre egiteko eta bestea kapital gastuei aurre egiteko.

Hernaniko Udalak, bestalde, hainbat diru sarrera arrunt dauzka bere aurrekontuan (sarreretako 1etik 5era arteko kapituluak). Horien artean azpimarratzekoa da Foru Aldundiaren eskutik Udal Finantzaketarako Foru Funtseko partaidetza kontzeptuan jasotzen duena (2012rako balioetsitako diru sarrera arrunten % 44,3416).

Partaidetza hau berantz doa nabarmen azken urte hautetan eta horrek eragina dauka Udalak aurrekontu ekitaldi bukaeran likidatzen dituen baliabideen guztizkoan.

Ereñotzuko Toki Entitate Txikia ere aldaketa hauen partaide izan behar duela jotzen denez.

Azteru da Ogasun eta Ondare-Kontuetarako Batzorde Bereziak Batzordeak 2012ko uztailaren 18an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- Ereñotzuko Toki Entitate Txikiari errekeritzea bere gain har dezala, Hernaniko Udalarekin batera, Udal Finantzaketarako Foru Funtsearen partaidetza gisa Foru Aldundiak egiten dituen ekarpenen urteko likidazioetako arrisku partekatua.
- 2.- Udal Finantzaketarako Foru Funtsearen likidazio horien eragina honen araberakoa izango da: hastapenez onartutako aurrekontuan Hernaniko Udalarentzat aurreikusitako diru sarrera arrunten guztizkoaren arabera entitate horrek ekarpen arrunt gisa jaso beharrekoaren ehunekoaren araberakoa izango da. (2012. urtean: ekarpen arrunta 267.219; Hernaniko Udalaren diru sarrera arruntak 23.643.304; eraginaren ehunekoa: %1,1302).
- 3.- Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak proposamen hori onartu eta dagokion agiria

13.- 2011. URTEKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA. - Udalbatzako lehendakariak 2011. urteko aurrekontuen Kontu Orokorra azaldu du, horrekin batera haien likidazioak aurkeztu dituelarik. Likidazio horiek Alkatetzaren dekretu hauen bidez onetsi dira: 2012ko martxoaren 28koa (Udalaren aurrekontua) eta 2012ko apirilaren 23koa (Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuaren aurrekontua); honenbestez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 62. eta 63. artikulua betez.

Era berean, kontu-hartzaileak Udalaren aurrekontu propioaren likidazioari buruzkoa txostena egin du, 2012ko martxoaren 28an.

Halaber, "Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatu"ko gerenteak erakunde autonomo horren aurrekontuaren likidazioari buruzko txostena egin du 2012ko apirilaren 2an.

Ogasun eta Ondare batzordea-Kontuetarako batzorde bereziak 2012ko ekainaren 19an egindako bileran 2011ko Aurrekontuaren Kontu Orokorriari aldeko txostena ematea eta jende aurrean jartzea erabaki zuen.

Kontu hori jende aurrean jarri zen 2012ko ekainaren 28ko GAOn (123 zk.), iragarki bidez, eta erreklamazioak egiteko dagoen 15 eguneko epean ez da erreklamazio, eragozpen edo ohar bakar bat ere egin.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeek aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 62. eta 63. artikuluek xedatutakoa kontuan hartuta,

Aztertu da Ogasun eta Ondare Batzordea-Kontuetarako Batzorde bereziak 2012ko urtarrilaren 18an emandako irizpena.

Esandakoa kontuan hartuta, Alkate jaunak irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

- * Aldeko botoak: 9 (BILDU).
- * Kontrako botoak: Bat ere ez.
- * Abstentzioak: 6 (2 EAJ-PNV, 3 EUSKAL SOZIA-LISTAK, 1 H1!).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

Hernaniko Udalaren eta bere erakunde autonomoaren 2011. urteko aurrekontuaren Kontu Orokorra onartzea. Kontu Orokor horrek ondorengo agiri hauek ditu:

- a) Egoeraren Balantzea.
- b) Galera eta Irabazien Kontua.
- c) Memoria, honakoa azaltzeko:
 - Finantzaketa-taula
 - Zorraren egoera
 - Informazio-eranskina; aurrekontuaren likidazioa eta Kontabilitate Orokorra erlazionatzen dituenak.
- d) Aurrekontuaren likidazioa.
- e) Egiazta-keta Balantzearen, Kreditu aldaketaren egoera eta Egoeraren eta Balore Mugimenduaren Egoeraren Eranskinak.

14.- "CEP LANGILE IKASTOLA LHI" UDAL JABETZAPEKO INMUEBLEAN KONPONKETA, ERALDAKETA ETA HANDIAGOTZE OBRAK EGITEKO BAIMENA, EUSKO JAURLARITZAK ESKATUA. - Aztertu da Ogasun eta Ondare-Kontuetarako Batzordeak 2012ko uztailaren 18an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

HERNANIKO Udalak Eusko Jaurlaritzari BAIMENA EMATEN DIO Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren bidez eta kasuan kasuko kontratazio administratiborako ohizko prozedurak erabiliz, CEP

LANGILE IKASTOLA LHI herri-ikastetxea kokatua dagoen irakuskuntzari xedemandako udal jabetzapeko inmueblean konponketa eraldaketa eta handiagotze obrak egin ditzan

15.- UDALAREN 2012KO PLANTILLA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEA. - Aztertu da Pertsonal Batzardeak 2012ko uztailaren 18an emandako irizpena.

Alkate jaunak esan du Udaltzaingoaren zuzendari lanpostua eratzea proposatzen dela, udaltzainburua jubilatu aurretik elkarrekin lan egiteko eta ordezkapena prestatzeko aukera izan dezaten.

Amonarraiz jaunak (EAJ/PNV) hau esan du: Batzordean egindako galdera berak egingo ditut hemen ere, ea beste era batera erantzuten dizkidazuen. Zein izango da lanpostu hori beteko duen pertsona eta zer nolako esperientzia dauka antzeko posturen batean?

Udal honetan ohitura dago zenbait lanpostuetan erretiroak gertatu behar direnean lehiaketa publikoa deitzea, lanpostua lortzen duen pertsonak jubilatzerako doanarekin batera aldi batez lan egiteko aukera izan dezan. Zergatik ez da gauza bera egin kasu honetan? Gure ustez kasu honetan jarraituko den jardunbidea ez da egokia. Batzordean abstenitu egin ginen eta, hemen emango dugun botoa galdera horiei ematen zaien erantzunaren baitan egongo da.

Alkate jaunak (Bildu) hau esan du:

Batzordean esan genuen moduan, kontratatuko den pertsona beste udal bateko Udaltzaingotik dator, eta badauka esperientziarik.

Izan ditugun hartu-emanen arabera, iruditzen zaigu bera dela pertsona egokia eta lanposturako behar den profila betetzen duela.

Pertsona horrekin harremanetan jarri aurretik, udaltzainbururako nahiz Udaltzaingoaren zuzendarirako egokia iruditzen zitzaigun beste pertsona batekin jarri ginen harremanetan, baina ezetz esan zigun.

Udaltzaingoaren funtzionamenduari buruz egindako azterlan batean ondorioztatu zen, besteak beste, Udaltzaingoaren zuzendaritzan hutsuneak zeudela.

Une horretan Udaltzaingoaren nondik norakoak ezagutuko zituen kanpoko pertsona bat ekartzeko aukera aztertu genuen, pertsona bat ezagutzeko aukera izan genuen eta, hainbat bileraren ondoren, kontratatzea erabaki dugu.

Amonarraiz jaunak (EAJ/PNV) hau esan du:

Antzeko lanpostu batean esperientzia, ez agente bezala, ulertu dut ezetz, badirudi beste Udal bateko udaltzaina dela.

Udaltzainburuaren erretiroaren aipamenari dagokionez, ulertzen dut ezinezkoa dela, oraindik 3 edo 4 urte gelditzen zaizkiolako. Hortaz, udaltzaingoaren burutzatik kanpoko irudi bat izango da, ikusi dituzuen hutsuneak bete ditzan, eta jakin nahi nuke zein den pertsonaren izena.

Alkate jaunak (Bildu) hau erantzun dio:

Pertsona horren izena dagokion unean ezagutaraziko da. Bi faktorek eragin dute gure erabakian, batetik, antolakuntzan eta burutzan sumatutako hainbat hutsune eta, bestetik, erretiroa. Aukeratutako pertsona egokia dela ikusten bada, hura izango litzateke ordezkapena bermatuko

lukeena. Ez dauka lanpostuan esperientziarik, eta gogorazi nahi dut bere garaian izan zela Udaltzaingoaren Zuzendari gisa kontratatuta lanean aritu zen beste pertsona bat, antzeko lanpostuan esperientziarik gabea, Ertzaina baitzen.

Amonarraiz jaunak (EAJ/PNV) esan du azaldutako horrekin ulertzen dela plazaren jabea erretiratzen denean ere ez dela lehiaketa publikorik egingo, alegia, pertsona honek beteko duela lanpostua.

Alkate jaunak (Bildu) erantzun du, hasieran behintzat, egiten den balorazioa ona baldin bada, pertsona honek beteko duela lanpostua.

Azkenik alkate-lehendakariak Pertsonal Batzordearen irizpenaren inguruko botazioa egin du. Hona emaitza:

- * Aldeko botoak: 9 (Bildu).
- * Kontrako botoak: 3 (2 EAJ/PNV eta 1 H1!).
- * Abstentzioak: 3 (Euskal Sozialistak).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

Udalaren 2012ko plantilla eta lanpostuen zerrenda aldatzea, eta ondoko lanpostu hau sortzea.

B) BEHIN-BEHINGO LANGILEAK/PERSONAL EVENTUAL

PLAZAREN DEITURA DENOMINACION DE LA PLAZA	KOPURUA NUMERO	TALDEA GRUPO (1)	EGOERA SITUACIO	OHARRAK OBSERVACIONES
2.- Udaltzaingoako zuzendaria/Director Guardia Municipal	1	A2	BB-E	

B) Pertsonal ebentualarentzat erreserbatutako lanpostuak

Lanpostua	Dotazioa	Maila Eufal.	Saila	Taldea	Eskala	Azpies	Klasea	H.E.	Derrig. Data	Bet.Era	E.Tit	Dedikazioa	Oharra k
Udaltzain Zuzendari	1	15	AL	A2	---	---	---	---	---	IL	L	%100	

16.- ESKAERAK ETA GALDERAK. – Ez dira egiten.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 19:20 orduetan bilera bukatutzat eman da eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatu dut.

6. PUNTUAREN ERANSKIÑA

GARBIGUNEAK ERABILTZEKO SAN MARKOKO MANKOMUNITATEAREN ETA KIDE DIREN UDALEN ARTEKO HITZARMEN ESPARRUA

ZIOEN AZALPENA

I.- SAN MARKOKO MANKOMUNITATEAK udalerrri desberdinetan hainbat GARBIGUNE eraiki eta kudeatzen ditu, besteak beste, tratamendu finalistara bideratutako hondakinen kopurua murrizteko, gaikako bilketaren indizeak hobetzeko, berrerabilpena sustatzeko eta konposta egitea bultzatzeko.

II.- Mankomunitateko Udalek laguntza logistiko garrantzitsua izan dezakete aipatu garbiguneetan, aurreko helburuekin bat datozen hondakinei buruzko politikak garatzeko orduan.

III.- Garbiguneak eraikitzeke Mankomunitateari lursailak laga dizkioten zenbait Udalek garbiguneen instalazioak Udalei beraiei erabiltzen uzteko baldintzapean egin dute, udal-zerbitzuetarako osagarriak izateko.

IV.- San Markoko Mankomunitateko garbiguneen zerbitzua erregulatzeko araudiak, Mankomunitateko Batzarrak 2012ko apirilaren 18an onartutakoak eta 2012ko ekainaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoak, lehenengo xedapen gehigarrian hala dio: "Mankomunitatearekin lankidetzeta-hitzarmenak eginez, tokiko erakundeek hondakinak murriztu eta tratamenduak hobe kudeatzen dituzten jarduera-mota guztietarako instalazioak erabili ahal izango dituzte".

V.- Administrazioen arteko hitzarmen esparru honek erabilera arautzen duten jarraibideak xedatzen ditu.

PARTAIDEAK

ALDE BATETIK

SAN MARKOk Mankomunitatea, bere lehendakariaren bidez ordezkaturakoa.

BESTE ALDE BATETIK

Zer garbigunereri atxikiko zaizkion zehaztuz, Udalaren dagokion organoak hartutako erabakiaren bitartez Hitzarmen Esparru honi eransten zaizkion Mankomunitateko Udalak.

AKORDIOAK

LEHENENGOA.- Udalari baimendutako zerbitzuak.

Mankomunitateak hurrengo erabilerak baimentzen ditu:

UDALAK edo berak izendatutako enpresak udalerrietan egindako hondakinen gaikako bilketatik datorren materia organikoa transferi dezan MANKOMUNITATEAK gordetzen dizkion GARBIGUNEAREN instalazioak erabil ditzake.

UDALAK edo berak izendatutako enpresak MANKOMUNITATEAK gordetako GARBIGUNEAREN instalazioetan kimaketa-hondakinak eta lorezaintzako hondar organikoak bota ditzake, horiek parke eta lorategi publikoen mantentze-lanetan sortu badira.

UDALAK edo berak izendatutako enpresak MANKOMUNITATEAK gordetako GARBIGUNEAREN instalazioetan gaikako bilketarekiko desberdinak diren udal-zerbitzuetatik datorren errefusa bota dezake.

UDALAK edo berak izendatutako enpresak MANKOMUNITATEAK gordetako GARBIGUNEAREN instalazioetan beste hondakinen zatiak bota ditzake, gaikako bilketaren zerbitzu orokorretik at bildu edo aldi baterako gordetzea beharrezkoa bada, besteak beste:

1. Poliespana
2. Artilea
3. Papera eta kartoia
4. Pixoihalak
5. Eraikuntza-hondakinak
6. Ontzi arinak
7. Tamaina handiko hondakinak

Aurreko zerrenda ez da zehatza eta Mankomunitateko Lehendakaritzaren Ebazpenez zabal daiteke.

UDALAK edo berak izendatutako enpresak GARBIGUNEAREN instalazioetan hondakinen beste zati batzuk bota ditzake, Garbiguneko erabiltzaile partikularrentzat zehaztutako baldintza berdinetan.

UDALAK edo berak izendatutako enpresak MANKOMUNITATEAK gordetako GARBIGUNEAREN instalazioetan norberak konposta egiteko egitura-elementuak bota ditzake. Helburua garbiguneko erabiltzaile partikularrek Udalak zehaztutako baldintzetan eraman ahal izatea da.

UDALAK edo berak izendatutako enpresak MANKOMUNITATEAK gordetako GARBIGUNEAREN instalazioetan partikularrek konposta egin ondoren, sortutako produktua bota dezake. Helburua garbiguneko erabiltzaile partikularrek Udalak zehaztutako baldintzetan eraman ahal izatea da.

Mankomunitateari hala eskatzen dioten udalerriko elkarteek eta bizilagunen taldeek lehenengoarekin lankidetzan jardun dezake berrerabiltzera bideratutako hondakinak kudeatzeko orduan.

UDALAK edo berak izendatutako enpresak GARBIGUNEko baskulan hondakinen bilketa kontrolatzeko interesgarritzat jotzen dituen hondakinen zatiak pisatu ahal izango ditu.

BIGARRENA.- UDALAREN betebeharrak orokorrak

Hitzarmen honen bitartez, atxikitako Udalak ondorengoak bete beharko ditu:

- Lehenengo akordioaren b), c) eta d) ataletan araututako hondakinak Udalak edo berak izendatutako enpresak garbigunean bota ondoren, hondakin horiek kudeatzeari dagokion kostua Mankomunitateari ordaindu beharko dio.
- Udalak eskatutako zerbitzua emateko, garbigunea jatorriz ez dituen ekipamenduz hornitu behar denean edo moldapen-lanen bat egin behar denean, Udalak Mankomunitateari ohiz kanpoko inbertsioen kostua ordaindu beharko dio.
- Hitzarmenean araututako garbigunearen erabilerarekin garbiguneko erabiltzaile partikularrei eta bizilagunei eragozpenik ez eragiteko, nagusiki, zaraten eta usainen eremuetan, behar

bezalako zaintza-lanak egin eta bitartekoak jarri beharko ditu. Hitzarmen honen ondoriozko gorabeherak behin eta berriz errepikatzen badira, Udala jatorrizko arrazoia aztertzeko eta arazoari konponbide egokia ematez arduratuko da, betiere arazoaren sortzaileak berez ebatzi behar ez badu.

- GARBIBUNEAREN instalazioak behar bezalako arduraz erabiliko ditu eta ohiz nahiz ohiz kanpo erabiltzearen ondorioz sor daitezkeen kalteen erantzukizuna izango du, betiere MANKOMUNITATEAK legez kaltea ez duenean pairatu behar.

HIRUGARRENA.- Lanean segurtasunari buruzko UDALAREN betebeharrak.

Lan-arriskuak prebenitzeko araudiak eta, bereziki, 171/2004 Errege Dekretuak, urtarrilaren 30ekoak, enpresa-jarduerak koordinatzearen arloan lan-arriskuak prebenitzeko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duenak, xedatutakoaren arabera, GARBIGUNEAREN instalazioak erabiliko dituen Udalak eta horrentzat jarduerak garatzen dituzten kontratistek eta azpikontratistek lan-arriskuen prebentzio-printzipioak bete eta langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko jokabideak zehaztu beharko dituzte. Izan ere, garbigunearen erabilera prebentzio-printzipioak eraginkortasunez betetzearen arabera izango da.

Xede horrez, GARBIGUNEA erabili baino lehen, bai Udalak berak, baita berarentzat jarduerak garatzen dituzten kontratistek eta azpikontratistek ere, MANKOMUNITATEARI zerbitzuak eskaintzen dizkion lan-arriskuen prebentzioko sozietatearen baimena lortu beharko dute aldez aurretik.

LAUGARRENA.- Mankomunitatearen betebeharrak.

Hitzarmen honen bitartez, Mankomunitateak ondorengoak bete beharko ditu:

1. Lehenengo akordioan deskribatutako zerbitzuak eskainiko ditu, betiere hitzarmena eragiten duen garbigunean horiek fisikoki posibleak badira.
2. Udal-langileei eta Udalak izendatutako enpresei garbigunerako sarrera eta baskularen erabilera erraztaraziko die, oro har, jendeari arreta eskaintzeko ordutegietatik kanpo, udal-zerbitzuen beharrek hala justifikatzen dutenean.
3. Lehenengo akordioko d) atalean xedatutakoaren arabera, botatako zatiei balioa ematearen ondorioz sortutako diru-sarrerak ordainduko dizkio Udalari.
4. Lehenengo akordioko a), b), c) eta d) atalei dagozkien hondakin-kopuruak, garbigunean botatakoak, erregistratuko ditu eta Udalari kopuru horiek hiru hilez behin jakinaraziko dizkio.

BOSGARRENA.- Garbigunea erabiltzeko orduan lehentasuna.

Garbigunearen muga fisikoak direla-eta, erabiltzeko orduan gatazkak sortzen badira, honako lehentasun-ordena aplikatuko da:

- Mankomunitaterako eskaintako zerbitzuak.
- Garbigunea kokatzen den udalerriko Udalari eskaintako zerbitzuak.
- Mankomunitateko beste Udal batzuei eskaintako zerbitzuak; hitzarmenean lehenago atxiki den Udalari lehentasuna emango zaio.
- Beste erakunde batzuei eskaintako zerbitzuak.

SEIGARRENA.- Jarraipen-batzordea.

Xedatutako guztia kontrolatu eta jarraitzeko, batzorde bat eratuko da hurrengo baldintzapean:

- Batzordea Mankomunitateko eta Udaleko kide-kopuru berdinak osatuko du.
- Mankomunitateko ordezkariak Lehendakaritzaren Ebazpenez izendatuko dira.
- Udaleko ordezkariak Alkatetzaren Dekretuz izendatuko dira.
- Batzordea gutxienez sei hilez behin bilduko da.

ZAZPIGARRENA.- Legezko esparrua.

Aipatu hitzarmena administratiboa da eta interpretatu nahiz garatzeko herri-administrazioen arteko hitzarmenei buruzko lege-antolamendu administratibo aplikagarriari erreparatuko zaio.

Interpretatu eta betetzeko orduan sor daitezkeen gai gatazkatsuak administrazioarekiko auzi eskumenekoak eta ezagutzakoak izango dira.

ZORTZIGARRENA.- Erantzukizuna mugatzea.

Esku hartzen duen alde bakoitzak bakarrik lankidetzahitzarmen honen babesean hartutako konpromisoei atxikitako erantzukizunak onartuko ditu.

BEDERATZIGARRENA.- Iraupena.

Administrazioen arteko hitzarmen honek iraupen mugagabea du.

HAMARGARRENA.- Aldi baterako etetea.

Mankomunitateak hitzarmen honen aplikazioa aldi baterako eten diezaioke atxikitako Udalen bati honako baldintzetan:

1. Etenaldia Lehendakaritzak erabakiko du.
2. Etenaldiak Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek egindako txostenean oinarritu behar du. Txostenean Udalak hitzarmenean dagoen akordioaren bat ez duela betetzen frogatu beharko da.
3. Ezingo da 15 egunetik gora eten.
4. Udalak etenaldia sortarazi duen erabilera okerra zuzendu beharko du.

HAMAIKAGARRENA.- Ebazpena.

Hitzarmen hau bakarrik bi aldeen arteko adostasunez ebatz daiteke.

